

Gaiaren lerro nagusiak.

Ikasgai honetan Lurraren azterketa egiten da, sistema desberdinak nola dauden osatuta, nola funtzionatzen duten, zein arazo dauden... ikuspegi orokor batetik begiratuta. Sistemak hauek dira: geosfera, hidrosfera, atmosfera, biosfera eta interfaseak (lurzorua eta itsasertza). Sistema bakoitza azalduko da beraiekin erlazionatutako inpaktu, arrisku eta baliabideak uztartuz.

Azterketa honek “mundua” nola funtzionatzen duen eta zein egoeratan dagoen ezagutzeko balio du, hori derrigorrezkoa baita etorkizuna zein izan daitekeen susmatzeko eta garaian neurri egokiak hartzeko. Azken gaian (“Garapen jasangarria”) horretaz arituko gara: sistema guztiak elkar eragiten dutenez, gizakiak egiten duenak beste alor guztietan du eragina, askotan uste ez zena. Gure etorkizuna planetan ziurtatzeko neurriak hartu behar dira: populazioa kontrolatu, nazioen eta pertsonen arteko ekitatea lortu, nazio garatuen kontsumo maila jeitsi,...

Neurri horietan parte hartzeko, lehenik, egoera zein den ezagutu eta ulertu behar dugu. Hori izango da gaiaren gidalerroa ikasturtean zehar.

**Edukiak.****I. INGURUMENA (sarrera).****II. LURREKO SISTEMAK**

- Geosfera.
- Atmosfera eta hidrosfera eta beraien dinamika.
- Biosfera.
- Intefaseak (lurzorua eta itsasertza).

III. PLANETAREN KUDEAKETA (garapen jasangarria).